

EMAITZEN HUSTUKETARAKO BITARTEKOAK

Diagnosia III

Diagnosiaren hirugarren fase honetan, diagnosia I eta II faseetan ikastolako dokumentazio ofizial eta esku-hartze eremu guztien gaineko egoeraz jasotako informazioaren hustuketa egingo da. Horretarako 1 – 14 eranskinak baliatuko ditugu.

Gero, diagnosiaren emaitzak ezaguturik, ondorioak ateratzeko unea iritsiko da: hizkuntz proiektuak markatutako helburuak lortu ahal izateko ikastolak dituen gabeziak identifikatuko dira. Horrela, eremu bakoitzeko ikastolako **Indarguneak, Ahuleziak eta Beharrak** idatziko dira. Horretarako 15. eranskina baliatuko dugu.